

**Textuak / Textos, Ur Apalategi
Argazkia / Fotografía, Juantxo Egaña**

Txillardegi

● Biografia	04
Biografía	05
● Txillardegi:	
Egilea, hitzaren zentzu guztieta ..	06
Autor, en todos los sentidos de la	
palabra.....	08
● Zati eta iruzkinak	
Fragmentos y comentarios.....	11
● Txillardegi	
Koldo Mitxelena kulturunean	
Txillardegi en	
Koldo Mitxelena kulturunea.....	17
● Interneteko baliabideak	
Recursos en Internet.....	35

Biografia

J

Jose Luis Alvarez Enparantza Donostiako Antigua auzoan jaio zen 1929ko irailaren 27an.

Etxean entzun ez eta bere kabuz hasi zen 1948an euskara ikasten. Horrekin batera, Bilbon ingeniaritza ikasten ari zela, gazte mugimendu abertzale zenbaitetan esku hartu eta presondegia ezagutu zuen lehenengoz. Eusko Alderdi Jeltzalearen jarrerari antzua iritziz, beste ikasle batzuekin batera Ekin taldea sortu zuen, zeina gerora ETA bihurtuko baitzen 1958an. Urte bat lehenago, Leturiaren egunkari ezkutua izeneko eleberri existencialistarekin euskal literatura modernitate literarioaren bidean jarri zuen.

Militantziak berriro atxilotua izatera eramango du eta 1961ean erbesteko bidea hartu zuen. Izañ dadila Iparraldean, Parisen edo Brusselan, idazketa eta engaiamendu politikoa uztartuz jarraituko du. Beste zeregin askoren artean, Euskaltzaindiarekin kolaboratuko du Euskara Batuaren eratze prozesuan, prozesu honen eragile nagusienetako delarik. 1967an ETA utzi zuen. 1977an, behin Hegoaidera itzulita, politikagintzan murgildu eta ESB alderdiaren sortzaileetako bat izan zen. Urte batzuk beranduago Herri Batasunaren senadore izatera iritsi zen. Bere aukera politikoek oztopatu bide diote behin baino gehiagotan Euskaltzain oso izendatua izatea eta azkenean bere hautagaitza proposatua izan zitzaionean berak uko egin zion izendapenari.

80ko hamarkadan ibilbide unibertsitari bati hasiera eman zion linguistikaren espezialista gisa. Egun, EHuko katedratiko emeritua da.

Gurdaino haziz joan den bere bibliografia oparo eta anitzean obra literario, saiakera nahiz hizkuntzalaritzako lan akademikoak aurki daitezke. Garrantzitsuenetako batzuk aipatzearren: literaturan, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Haizeaz bestaldetik* (1979), *Putzu* (1999); saiakeran, *Huntaz eta hartaz* (1965), *Hizkuntza eta pentsakera* (1972), *Euskal Herria helburu* (1994); arlo akademikoan, *Euskal fonologia* (1980), *Euskal azentuaz* (1984), *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* (1984).

J

Jose Luis Alvarez Enparantza nació en el barrio del Antiguo de San Sebastián, el 27 de septiembre de 1929.

Comenzó a aprender la lengua vasca, desconocida en el seno de su familia, por sus propios medios, en 1948. Al mismo tiempo, en sus épocas de estudiante de ingeniería en Bilbao, participó en diversos movimientos nacionalistas juveniles, hecho que le valió su primera temporada en prisión. Junto con otros estudiantes, que, como él, consideraban estéril la actitud del Partido Nacionalista Vasco, fundó el grupo Ekin, el cual daría lugar a ETA en 1958. Un año antes, había empujado a la literatura vasca hacia la senda de la modernidad, con la publicación de la novela existencialista *Leturiaren egunkari ezkutua*.

Volvió a ser detenido por su militancia, y en 1961 marchó al exilio. En el País Vasco continental, en París o en Bruselas, continuará fiel a su faceta de escritor y a su compromiso político. Entre otras muchas actividades, colaboró con la Academia de la Lengua Vasca en el proceso de creación de la lengua vasca unificada común, de la que sería uno de los principales promotores. Abandonó ETA en 1967. En 1977, tras su regreso al País Vasco peninsular, metido de lleno en la actividad política, participó en la fundación del partido ESB. Años más tarde, llegaría a ser senador por el grupo de Herri Batasuna. Tal vez sus opciones políticas hayan sido freno, en más de una ocasión, para su nombramiento como académico de la lengua vasca; finalmente, acabó por oponerse voluntariamente a una propuesta de nominación.

En la década de los 80, inició su itinerario universitario como especialista en lingüística. En la actualidad, es catedrático emérito de la UPV.

Su variada y prolífica producción bibliográfica, en la que se hallan obras literarias, ensayos y obras académicas sobre lingüística, no ha hecho sino crecer hasta la fecha. Algunas de sus obras más notables son: novelas, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Haizeaz bestaldetik* (1979), *Putzu* (1999); ensayos, *Huntaz eta hartaz* (1965), *Hizkuntza eta pentsakera* (1972), *Euskal Herria helburu* (1994); obras académicas, *Euskal fonología* (1980), *Euskal azentuaz* (1984), *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* (1984).

Egilea, hitzaren zentzu guztieta

Txillardegiaren tamainako pertsonaia ulertzeko biderik okerrena da, maizgi egin den moduan, landu dituen atal ugarietako bat bakarra aukeratu eta bertan zer ekarpen egin duen aztertzea, eta hori gutxi balitz, gaur egungo testuinguruari soilik zor zaizkion irizpideak modu lehorrean aplikatzea delako ekarpena epaitzeko. Adibide bakar bat ematearren, gertatu izan da behin baino gehiagotan Txillardegiaren nobelagintza gutxietsia izatea, ahantzirik gaurko euskarazko literaturaren garapen mailara iristeko hain zuen nobelagintza honek izan duen garrantzia, bai hizkera literarioaren finkatze prozesuan, bai narratologiari begira, bai tematikaren eraberritze eta zabaltze prozesuan. Txillardegi kritikatzea -eta ez gara orain literaturari buruz bakarrik ari- gure intelligentsiaren kirol kuttuna bihurtu zen 80eko hamarkadan. Idazle edo saiakeraegile belaunaldi berri oso baten erasoak jasan zituen orduan, eta hori da behar bada egin zekiokeen omenaldirik handiena, paradoxa badirudi ere. Izan ere, Txillardegiaren belaunaldi heterodoxoak Orix «aita» hil behar izan bazuen euskalgintzari modernotasunaren ateak irekitzeko, Trantsizio garaian idazten hasitako «autonomiaren belaunaldiko» partaideek Txillardegiaren figura dominatzailea kontra-eredu gisa hartuz eratu zuten beraien nortasun propioa. Hark betidanik aldarrikatzen zuen kulturaren politizazioa gogorki salatzen zutelarik garai hartako idazle gazte batzuek, berriro ere paradoxa, irizpide ezin politikoagoen arabera sistematikoki deskalifikatu ohi zuten hark egindako oro. Ezin izan idazle ona ezker abertzaleko norbait. Gezurra badirudi ere, doxa bihurtzeraino zabaldu zen uste hori, errepiatzearen errepiatzeaz. Txillardegiaren itzala luzea zen seinale, zer duda. J.M. Torrealdairen Euskal idazleak gaur liburuan (1977) euskal idazleetan estimatuena eta miretsiена bezala agertzeak ez gaitu, beraz, harrituko. Azken bi belaunaldi hauen arteko auziaren txingarrak erraustu diren honetan, historia liburueta behin betiko igaroak, iritsi bide da Txillardegi begirada zohardi eta begirune maitekorra eskaintzeko unea.

Jose Luis Alvarez Enparantza (1929) Antiguatarraren ibilbide bio-bibliografiko luze bezain abenturaz betean zehar erabilitako ezizenak -Txillardegi famatuaren ondoan Harrizbikieta, Larresoro, Igara edo Usako ere aurki ditzakegu- pertsonaiaren beraren aniztasunaren eta emankortasunaren metafora bihurtzen dira.

Horregatik, ez da komeni idazle aurpegi anizdun hau muga hertsiegetara mugatzea : hastapenetako ETA erakunde politiko-kulturalaren fundatzaile, euskaldun berri, injiniari, pianozale amorratu, militante presondegiratu, Leturia izeneko euskal letretako lehen pertsonaia gatazkatsuaren sortzaile, erbesteratu, euskal aditz batuaren taulen egile eta batueraren eragile nagusienetako, ezker abertzaleko senatore, buddhismoz kutsaturiko eleberri poetiko sailkaezin baten egile (Haizeaz bestaldetik, 1979), soziolinguistikan espezialdutako unibertsitari emerito, euskararen aldeko borrokalari nekaezin... hau guztia da Txillardegi, eta agian garrantzitsuagoa dena, hau guztia batera.

Izan ere, idazle izateko era berri bat da, beste gauza askoren artean, Txillardegik euskal kulturari (eta baliteke gizarteari ere) eskaini dion gauzefarik bat. XX. mendean hainbesteko presentzia eta garrantzia izan dituen «intelektual engaiatu» edo konprometituaren figura, Jean Paul Sartrek nazioarteratua, norbaitek gorputzu baldin badu Euskal Herrian, hori Txillardegi izan da. Horregatik, Txillardegi ulertzeko sintesia lehenetsi behar da analisiaren aurretik. Ezin uler daiteke Txillardegiren nobelagintza bere borroka extra-literarioetatik bananduz, ez beste ezein atal gainerakoengandik bereiziz. Fronte guztietañaldi berean ibili izan da idazlea, frankismopeko euskal gizarte ahulduaren egoerak berak hala eskatzen zuelako, euskara arrazoi politikoengatik hiltzen ari zen unean zentzugabea zatekeelako marfilezko dorre batean sartzea. Baino baita funtsean humanista bat izan delako beti, hitz honen zentzurik zaharrenean -Berpizkundeko intelektualek bezala, gizakiaren ikuspegি orokor eta integrala du gogoko (hortik pertsonaia publikoa den aldetik idazleari egozten dion erantzukizun politikoa)- zein berrienean -existentialismoaren zentzuan, hau da, gizon angustiaz betea (ikus bere nobelagintzaren negatibilitate eta iluntasun batere ez kontsensualak), absurduauren kontzientzia izanik ere aurrera egitea erabaki duena, aukerak egiten dituena, zerbait izatera iristeko-. Eta bada zerbait Txillardegi euskaldunontzat.

Autor, en todos los sentidos de la palabra

Txillardegi es un personaje de tal talla que para comprenderlo lo peor que se puede hacer es, como se ha hecho ya demasiadas veces, elegir un único campo de los numerosos que ha cultivado y analizar sólo lo realizado en él; y, por si eso fuera poco, juzgar dicha aportación aplicando escuetamente criterios sólo vinculados al contexto actual. Por citar sólo un ejemplo, recordemos que la novelística de Txillardegi ha sido menospreciada en más de una ocasión, olvidando la importancia que ha tenido justamente para que la literatura vasca haya llegado al nivel de desarrollo que hoy tiene, tanto en lo que se refiere a la fijación del lenguaje literario, como a la narrativa, y al proceso de renovación y ampliación de la temática. Criticar a Txillardegi -y ahora no nos referimos sólo a la literatura- se convirtió en el deporte preferido de nuestra intelectualidad durante la década de los 80. Padeció entonces los ataques de toda una nueva generación de escritores o ensayistas, lo cual sea quizás el mayor homenaje que se le pudiera rendir, aunque parezca paradójico. Y es que, si la heterodoxa generación de Txillardegi tuvo que matar al «padre» Orixé para abrir las puertas de la modernidad a la actividad cultural vasca, los partícipes de la «generación de la autonomía» que habían empezado a escribir en la época de la Transición conformaron su propia personalidad tomando como «contra-modelo» la figura dominante de Txillardegi. Jóvenes escritores de aquella época que denunciaban con fuerza la politización de la cultura reclamada desde siempre por aquél -nuevamente la paradoja- descalificaban sistemáticamente todo lo que había hecho, basándose en criterios sumamente políticos. Quien es de la izquierda abertzale (nacionalista) no puede ser buen escritor. Aunque parezca mentira, dicha idea se propagó hasta llegar a ser una opinión generalizada, a fuerza de repetirla. Prueba de que la sombra de Txillardegi es larga, qué duda cabe. Por eso no nos sorprenderá que en el libro *Euskal idazleak gaur* (Los escritores vascos hoy, 1977) de J.M. Torrealdai, Txillardegi figure como el más querido y admirado de los escritores vascos. Ahora que las brasas de la contienda entre estas dos generaciones se han

reducido a ceniza, que han pasado definitivamente a los libros de historia, parece haber llegado el momento de mirar a Txillardegi con mirada serena y afectuoso respeto.

Los seudónimos empleados por el antiguotarra Jose Luis Alvarez Enparantza (1929) en su trayectoria bio-bibliográfica tan larga como llena de aventuras -encontramos, junto al más conocido de Txillardegi, Harrizbikieta, Larresoro, Igara o Usako- resultan ser metáforas de la diversidad y fertilidad del propio personaje. Por eso, no conviene reducir este polifacético escritor a límites demasiado estrechos: fundador de la organización político-cultural ETA de los comienzos, vascoparlante por aprendizaje, ingeniero, apasionado por el piano, militante encarcelado, creador de Leturia, el primer personaje conflictivo de las letras vascas, exiliado, autor de las tablas del verbo vasco unificado y uno de los principales promotores del lenguaje unificado, senador de la izquierda abertzale, autor de una novela poética inclasificable contagiada de budismo (*Haizeaz bestaldetik*, 1979), universitario emérito especializado en sociolingüística, luchador incansable en favor del euskara... Txillardegi es todo esto, y lo que quizá sea más importante, todo esto al mismo tiempo.

De hecho, una de las muchas cosas que Txillardegi ha ofrecido a la cultura (y quizá también a la sociedad) vasca es una nueva manera de ser escritor. Si alguien en el País Vasco ha materializado la figura del «intelectual comprometido», internacionalizada por Jean Paul Sartre, que tanta presencia e importancia tuvo en el siglo XX, ese alguien ha sido Txillardegi. Por eso, si se quiere entender a Txillardegi, hay que dar prioridad a la síntesis sobre el análisis. La novelística de Txillardegi no se puede entender separándola de sus luchas extralingüísticas, ni desvinculándola de ningún otro aspecto. El escritor ha actuado en todos los frentes al mismo tiempo, porque así lo requería la propia situación de la debilitada sociedad vasca bajo el franquismo, ya que no hubiera tenido sentido encerrar al euskara en una torre de marfil en el momento en que estaba muriendo por razones políticas. Pero también porque en el fondo él ha sido siempre un humanista, tanto en el sentido más antiguo de la palabra -al igual que a los intelectuales del Renacimiento, le gusta la visión global e integral del ser humano, y de ahí la responsabilidad política que imputa al escritor en cuanto es un personaje público- como en el más nuevo -en el sentido del existencialismo, es decir, el del hombre angustiado (véase la negatividad y oscuridad nada consensuales de su novelística), que decide continuar adelante pese a tener conciencia del absurdo, el hombre que toma sus decisiones, para llegar a ser algo-. Y Txillardegi es algo para los vascos.

TXILLARDEGI

**Leñuria-ren
egunkari
ezkuñua**

**EUSKAL IDAZ-LANAK
BILBAO**

Zati eta iruzkinak

Fragmentos y comentarios

Leturiaren egunkari ezkutua (1957)

Neure jaiotzaz oroitza naiz; neure jaiotza egiazkoaz, bai; zeren, Egunkaria idazten hasi nintzenean jaio bainintzen ni, jaio, orduan senditu bainuen bizi-beharra. Betbetan, eta zergatik jakin gabe, olerki kutsua idoro nuen guztian. Jaiokundea bezala izan zen hura. «Zerbait» berri mintzatzen zitzaidan lehenengo aldiz, hutsune eta tristuraren ondorea barne-barnean utzita.

Leturiaren egunkari ezkutua. Elkar, 1985, or. 93

1957an aurkitzen gara eta Txillardegik euskarazko nobelagintza ildo berri batean jartzen du *Leturiaren egunkari ezkutuarekin*. Koldo Mitxelenak orduko euskal letrak diren «soro meharra»-ri egindako ekarpena goraipatzen du obrari egindako hitzaurrean. Ez da gutxiagorako. Leturia dugu gure literaturako lehen pertsonaia gatazkatsua, Leturiaren barne-bakarrizketa ere ikusi (edo irakurri) gabea da artean, eta beste hainbat arrazoirengatik ere, lehen euskal eleberri modernotzat jo ohi da obra hau.

Nos encontramos en 1957, año en el que Txillardegi publica *Leturiaren egunkari ezkutua* (*El diario secreto de Leturia*), situando la narrativa en euskara en una nueva dimensión. En el prólogo de la publicación, Koldo Mitxelena ensalza la gran aportación que supone la obra al entonces "estrecho campo de cultivo" de la literatura vasca. No es para menos. Leturia es el primer personaje conflictivo en nuestra literatura y su monólogo interior también constituye una novedad técnica en la narrativa vasca; en definitiva, por estas y otras razones, *Leturiaren egunkari ezkutua* ha sido considerada la primera novela moderna en euskera.

Hitza hitz : Txillardegiaren solasean (1996)

Ajuriagerrak bide gogorrenetik jotzea erabaki zuen, gure izenak ezagutzen emanez, eta gurekin ez kolaboratzeko eskatuz. Egoera larriagotuz joan zen. Bizkaitik ere gisa bereko berriak iristen ziren. Egoera oso txarra zen, tentsio izugarria genuen, eta Madariagak eta nik bereziki hautsi eta beste zerbait, izen bat zuen erakunde bat sortu behar genuela esaten genuen. Benito del Vallek, berriz, indefinizio horretan segitza hobe genuela erantzuten zigun. Azkenik, 1958ko bukaeran, seguruak ez ziren pertsona guztiekin hautsi eta erakunde berri bat hasieratik eraikitzen hastea erabakia genuen. Horrela sortu zen Euskadi Ta Askatasuna.

Hitza hitz : Txillardegiaren solasean (Joxean Agirre elkarriketatzale). Elkar, 1996, or. 88

Bere bizitzari atzera begira hasten zaio Txillardegi 90eko hamarkadan, eta ibilbide oparo horretan kapitulu berezia osatzen du, nola duda, ETA erakundearen sortze prozesuak, zeinen aktore nagusietako bat izan baitzen harik eta 1967an ateratzea erabaki zuen arte. Eleberri egile gisa ere, zeharka edo zuzenean (*Exkixu zein Putzu obrekin, kasurako*), borroka armatuaren edo engaiamendu politikoaren gaia behin eta berriro jorratuko du.

Entonces Ajuriagerra decidió jugar fuerte, dando a conocer nuestros nombres y pidiendo que nadie colaborase con nosotros. La situación fue agravándose. De Bizkaia también nos llegaban noticias parecidas. Vivíamos una situación muy dura y de gran tensión, y Madariaga y yo sobre todo planteábamos que había que romper y crear algo diferente, una organización con nombre propio. Benito del Valle, por su parte, nos respondía que era mejor seguir en aquella indefinición. Por último, a finales de 1958, rompimos con quienes no eran seguros y decidimos fundar una nueva organización empezando de cero. Así fue como se creó Euskadi Ta Askatasuna.

*Hitza hitz : Txillardegiaren solasean (entrevistado por Joxean Agirre). Elkar, 1996, p. 88
"Hablando con Txillardegi", traducción del original*

En aquella conversación mantenida a mediados de los 90, Txillardegi echa una mirada retrospectiva a su vida: como no podía ser de otra forma, en la amplia trayectoria que recorre con su memoria ocupa un capítulo especial el proceso de fundación de la organización ETA, uno de cuyos actores protagonistas fue él mismo, hasta que decidió dejar la organización en el año 1967. También en sus novelas -como *Exkixu* o *Putzu*- serán temas recurrentes la lucha armada y el compromiso político.

Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981 (1984)

Euskal arazoaz ez da kultur arazo huts bat, jakina; eta honetara bildu nahi izatea, eskuindarkeria da. Baino euskal arazoak kultur izaria du bere muinean, eta kultur izari hori gabe, ez da euskal arazoa (gizarte-arazo bat izan badaiteke ere, nahiz ez nazio-arazoa).

Bi mutur horien arteko bide hertsia euskal iraultzaileek ongi aurkitu eta errespetatu arte, Euskal Herriak ez du gerorik izango.

Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981. Elkar, 1984, or. 82-83

Ezker abertzalekoa deritzon jarrera politikoaren ikuspegitik pentsatu izan du beti Txillardegik euskal arazoa. Beti ere koherentzia bila dabilen idazle honen gogoetetan, hizkuntzak, kulturak eta politikak bat egiten dute, bereiziezinak dira.

El problema vasco, por supuesto, no es una cuestión meramente cultural. Pretender reducir la cuestión vasca al aspecto cultural es derechismo.

Pero el problema vasco sí tiene en su esencia una dimensión cultural, sin la cual no sería tal problema vasco (podría ser un problema social, pero no sería un problema nacional).

Hasta que los revolucionarios vascos no encuentren el angosto camino que une a ambos extremos, Euskal Herria no tendrá futuro.

Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981. Elkar, 1984,
p. 82-83

"La opresión de la cultura vasca 1956-1981",
traducción del original.

Txillardegi ha entendido el problema vasco siempre desde la perspectiva de la actitud política conocida como izquierda abertzale. En las reflexiones de este escritor hay una continua búsqueda de coherencia, en la que lengua, cultura y política forman una unidad indisoluble.

Elsa Scheelen (1968)

Afai aurretik Elsa-k irratia piztutzen zuen, eta ezin jasan zituen musika-mota batzu baizik : «ye-ye» delakoa, «jazz» berri batzu, eta horrelakorik. Beste guztiak sendiberegi uzten zuten, pentsakor, kezkatsu. Sekula baino sakonkiago maite zituen Debussy, Ravel, Roussel, Dvorak; baina hain zuzen ere, jasan ezinak zitzaizkion: taupada bitxiak hasten zitzaizkion bihotzean eta neke berri bitxi bat; eta itzaldu egin behar izaten zuen. «Malenkoniarren seme da Artea; ez etsipen guztizkoarena», zion maiz. Erritmo haundiko gauzak nahi zituen horrengatik; eta batzutan dantzan hasten zen, gela txiki hartan bera bakarrik, denbora luzeaz, guztiz nekatu arte. Gero oheratu egiten zen, eta ezer seriotan ez pentsatzen saiatzen zen. Harropen gorabeherak aztertzen zituen ilunpean, sapaira so, xehetasun guztietan. Biharamoneko janari kontuak eta erosketaren gorabeherak ere gogoeta-gai egokia zitzaizkion. Luc bururatzen zitzaion nahi baino maizago, baina ahaztutzen saiatzen zen berehalatik.

Elsa Scheelen. Elkar, 1985, or. 40

Bere garairako mardula zen eleberri honetan beste behin ere existencialismo literarioa du autoreak inspirazio iturri nagusi. Garai bertsuan argitaraturiko Saizarbitoriaren lehen eleberrian jazotzen zen bezala, atzerrian kokatzen da ekintza eta heroi eponimoa den Elsa ez du ageriko zerikusirik Euskal Herriarekin. Pertsonaia nagusiaren barne-bizitza da Txillardegiri interesatzen zaiona. Halere, *Leturiaren egunkariarekin* erkatuz gero, testuinguruak indarra hartu du eta kutsu sozio-historikoak loditasuna ematen dio problematika existencialari. Narrazioak, berriz, bere tradizionaltasunean, uko egiten dio garai harten modan zeuden modernismoei.

En esta novela, de notable extensión para su época, el autor vuelve a adoptar como fuente de inspiración fundamental el existencialismo literario. Como en la primera novela de Saizarbitoria, publicada casi al mismo tiempo, la acción se sitúa en el extranjero y la héroe epónima de la novela, Elsa, no tiene aparentemente vinculación alguna con Euskal Herria. A Txillardegi le interesa sobre todo la vida interior de la protagonista. Sin embargo, comparando esta novela con *El diario secreto de Leturia*, en ésta cobra importancia el contexto y en su trasfondo histórico-social se plasma una problemática existencial. La narración, aún así, es más tradicional y técnicamente hace caso omiso de los modernismos en boga en aquella época.

Haizeaz bestaldetik (1979)

Eta eguzkia mendien atzetik agertua ez zelarik, Ahüñemendi-ren ondoan gertatu banitz bezalaxe, zelai gogor harkaitzu batetara heldu nintzen. Eta, arnasa gainditzeko ere indargeturik, eseri egin nintzen :

—Zer da hau guztia ?

Eta lakuetako urgainaren geldia gogoratu zitzaidan; eta tema bihurtu ere bai. Uhnik gabeko bare giro hartara bultzatzen ninduten neure arimako asalduek eta ekaitzek. Kanpoko bakeaz baretu nahi barnea... Ene itsua !... Mugak behar, mugak nahi.. mugak maite !... Baina mugak Ezereza adierazten... Heriotza nahi, horretaz, azken funtsean... Ezereza nahi. Eza !

Berriro ere, ordu hartan eta belaunaldi berrietako idazleen artean nagusi ziren literatur joerei jaramonik egin gabe, nobela arras atipikoarekin datorkigu Txillardegi zentzumenak nahiz burmuinak kitzikatzena. Nietzsche-ren Zarathoustraren leinukoa bide den narratzaileak giza kondizioa du kezka nagusi eta zenbait izadiko elementu (Itsasoa eta Aintzira, batez ere) bere kezka azaltzeko lanabes metaforiko. Aurretik eleberriekiko kontraste estetikoa bortitza bada ere, funtsean betiko gai txillardegiaren sakontze bat baino ez da eleberri ezin bereziago hau.

Otra vez al margen de las tendencias literarias imperantes en la época entre las nuevas generaciones de escritores, Txillardegi se nos presenta con una novela totalmente atípica, que pretende agitar nuestros sentidos y pensamientos. El narrador, en la estela del Zarathustra nietzsiano, reflexiona sobre la condición humana valiéndose de recursos metafóricos obtenidos de elementos de la naturaleza (sobre todo el Mar y el Lago). Aunque plantea un gran contraste estético con su anterior producción narrativa, en el fondo la novela continúa profundizando en los eternos temas txillardegianos.

Txillardegi Koldo Mitxelena Kulturunean

Aurkibidea - Índice

- 1. Narratiba
Narrativa**
- 2. Saiakera
Ensayo**
- 3. Eskutitzak
Correspondencia**
- 4. Artikulu bilduma
Compilación de artículos**
- 5. Hizkuntzalaritza orokorra eta euskara
Lingüística general y euskera**
- 6. Euskal kultura
(politika, historia, sailkatu gabeak)
Cultura vasca
(política, historia, miscelánea)**
- 7. Elkarrizketak
Entrevistas**
- 8. Txillardegiri buruzko azterketak
Estudios sobre Txillardegi**

Ohar bibliografikoa

Atal honetan gure liburutegian dauden Txillardegiaren lanak nahiz egileari buruz idatzi den guztia jaso nahi dugu.

Lehenengo Txillardegi idatzitako lanak aipatu ditugu genero edo gaika antolatuta eta, horietako bakoitzaren barruan, jatorrizko argitalpen dataren arabera. Bigarrenean idazleari buruzkoak jaso ditugu. Hemen azterketa monografikoak eta aldizkarietako artikuluak bereizten ditugu.

Azpimarratu nahi dugu gida hau zabalkundeko baino ez dela, ez dugula gaia agortzeko helburuarekin egin. Txillardegi oso artikulugile oparoa da eta bere idazle-alderdi honen berri zehatzagoa nahi izanez gero, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekak Pruden Gartziaren zuzendaritzapean argitara emandako "Txillardegiaren bibliografia : 1956-1999" kontsulta daiteke. Txillardegik hainbat aldizkaritan (Egan, Euskera, Jakin, Zeruko Argia, Branka, Enbata, Bat...) eta Euskaldunon Egunkaria-n argitara emandako artikuluak bildu dira bertara. 1999tik aurrerako aipamenak Azkue Bibliotekako katalogoa kontsulta daitezke (www.euskaltzaindia.net/azkue/). Artikulu horiek -batez ere pentsamendu politikoari buruzkoek- gida honen hizkuntzalaritzako eta euskal kulturako atalak osatzen dituzte eta ia denak irakur daitezke gure hemerotekan.

Bibliografia oharren transkripzioa eta aurkezpena liburutegietako araudiarri jarraituz egin da.

Erreferentzia bibliografikoak ondorengo argibideak ematen ditu:

Obraren jatorrizko argitalpen urtea
Izenburua / edukin intelektualaren arduraduna(k). -
Argitaraldia. - Argitaralekua : Argitaletxea, argitalpen-data
Orrialdeak : ilustrazioak ; alearen neurriak. - (Saila ;
zenbakia)
Oharrak

Gida hau Interneten ere aurki daiteke.

Helbidea: txillardegi.gipuzkoakultura.net

Koldo Mitxelena Kulturuneko beste irakurketa gidak bertsio digitalean kontsultatzeko, bilatu:

<http://www.gipuzko.net/kultura>

[Liburutegi digitala / Irakurketa gidak]

Nota bibliográfica

En este apartado queremos recoger tanto la obra de Txillardegi presente en nuestra biblioteca como lo escrito sobre el autor.

En primer lugar presentamos la obra de Txillardegi ordenada por género o tema y dentro de cada uno según la fecha de publicación original. En segundo lugar mencionamos obras referentes al autor. Aquí diferenciamos estudios monográficos y artículos en revistas.

Deseamos recalcar que esta guía se ha elaborado con un propósito divulgativo, no pretende ser exhaustiva. Para profundizar en la ingente actividad articulística de Txillardegi puede consultarse la obra "Txillardegiren Bibliografia : 1956-1999", realizada por la Biblioteca Azkue de Euskaltzaindia bajo la dirección de Pruden Gartzia. Se recogen en este trabajo los artículos escritos por Txillardegi en revistas como Egan, Euskera, Jakin, Zeruko Argia, Branka, Enbata, Bat, etc. y en el periódico Euskaldunon Egunkaria. Las referencias posteriores a 1999 pueden consultarse en el catálogo de la Biblioteca Azkue (www.euskaltzaindia.net/azkue/).

Los artículos de Txillardegi mencionados en las fuentes citadas -en especial los relativos a su pensamiento político- completarían los apartados de lingüística y cultura vasca de esta guía, encontrándose casi en su totalidad en nuestra hemeroteca.

La transcripción y presentación de las referencias bibliográficas se ha realizado conforme a la normativa bibliotecaria.

La información que ofrece la referencia bibliográfica es la siguiente:

Año de publicación original de la obra

Título / responsable(s) del contenido intelectual. - Edición. -

Lugar de edición : Editorial, fecha de publicación

Páginas : ilustraciones ; dimensiones del ejemplar. - (Serie ; número serie)

Notas

Esta guía puede consultarse también en Internet, en la siguiente dirección: txillardegi.gipuzkoakultura.net

Para acceder a otras guías de lectura de Koldo Mitxelena

Kulturunea en versión digital:

<http://www.gipuzkoa.net/kultura>

[Dentro de: Biblioteca digital / Guías de lectura]

Narratiba Narrativa

1957

Leturia-ren egunkari ezkutua / J.L. Alvarez
Enparantza (Txillardegi) ; irudiak, J.M. Alvarez
Emparanza ; sarrera, L. Mitxelena. - Bilbao : Euskal
Idaz-Lanak, 1957. - 146 or., 7 o. lam. ; 20 cm. - (Len
eta orain ; 3)

Ed: Donostia : Elkar, 1983
 Ed: Donostia : Elkar, 1985
 Ed: Hernani : Orain, 1995

1960

Peru Leartzako / Txillardegi (Jose Luis Alvarez
Enparantza). - Zarautz'en : Itxaropena, 1960. - XI,
151 or. ; 19 cm

Ed: San Sebastián : Elkar, 1979

1969

Elsa Scheelen / J.L. Alvarez Enparantza
"Txillardegi". - Donostia : Kriselu, 1969. - 248 or. ;
19 cm. - (Kriselu ; 6)
1968. urteko Domingo Agirre Sariaz Euskaltzaíndiak
hornitutako elaberria

Ed: Donostia : Elkar, 1978
 Ed: Donostia : Elkar, 1981
 Ed: Donostia : Elkar, 1985

1979

Haizeaz bestaldetik / Txillardegi. - Zarautz :
Itxaropena, 1979. - 227 or. ; 19 cm

Ed: Donostia : Elkar, 1988

1984

Kosmodromo : (ipuin bilduma) / Txillardegi. -
Donostia : Haranburu, 1984. - 75 or. ; 21 cm

**Allende el viento / Txillardegi. - Donostia :
Haranburu, 1984. - 181 p. ; 21 cm
Traducción de: Haizeaz bestaldetik (1979)
Honakoaren itzulpena: Haizeaz bestaldetik (1979)**

1988

**Exkixu / Txillardegi. - Donostia : Elkar, 1988. - 228
or. ; 19 cm. - (Euskal literatura. Elaberria ; 67)**

Ed: Baiona : Elkar, 1997 (6. argit.)

1999

**Putzu / Txillardegi. - Donostia : Elkarlanean, 1999. -
385 or. ; ir. ; 21 cm. - (Literatura saila ; 193)**

2

**Saiakera
Ensayo**

1965

**Huntaz eta hartaz / Txillardegi. - Donostia : Elkar,
1983. - 107 or. ; 21 cm. - (Orhi ; 16)**

3

**Eskutitzak
Correspondencia**

**[Koldo Mitxelena eta Txillardegiren arteko
elkarridazketa]. - 1956-1961.**

6 gutun

**Txillardegi eta Martin Ugalderen arteko gutunak
(1961-1969) / biltzailea, Joan Mari Torrealdai
In: Jakin. - Donostia. - 114. zk. (iraila-urria 1999),
117-180 or.**

4

Artikulu bilduma Compilación de artículos

1978

Euskal Herritik erdialherrietara / Txillardegi ; hitzaurrea, Joan Mari Torrealday. - [S.I.] : [s.n.], 1978. - 497 or. ; 21 cm

1985

Gertakarien lekuko / Txillardegi. - Donostia : Haranburu, 1985. - bol. <1> ; 21 cm
Bigarren tomoa ez zen argitaratu

5

Hizkuntzalaritza orokorra eta euskara Lingüística general y euskera

**HIZKUNTZALARITZA OROKORRA
LINGÜÍSTICA GENERAL**

1972

Hizkuntza eta pentsakera / Larresoro. - Bilbao : Mensajero, 1972. - 144 or. ; 18 cm. - (Etor Bidean Kultura ; 12)

1979

Fonologiaren matematikuntza / prestatzaile, Txillardegi. - Iruñea : Udako Euskal Unibertsitatea, 1979. - 75 or. ; 30 cm

1990-

Bat : soziolinguistica eta glotopolitika aldizkaria. - 1 zk. (1990 otsaila)-. - Donostia : Euskal Kulturaren Batzarrea, 1990-
Aldizkariaren zuzendari-ohia eta kolaboratzailea

1994

Soziolinguistica matematikoa / Jose Luis Alvarez Enparantza, Xabier Isasi Balantzategi. - Bilbo : Udako Euskal Unibertsitatea, 1994. - VI, 205 or. ; ir. ; 24 cm. - (Soziolinguistica saila ; 5)

1997

La aportación de Joan Coromines a la filología vasca / J.L. Alvarez Enparantza "Txillardegi"
En: *Fontes linguae vasconum.* - Pamplona. - Año 29, n. 74 (en.-abr. 1997), p. 85-91

2002

Hacia una socio-lingüística matemática / José Luis Álvarez Enparantza "Txillardegi". - Donostia : Euskal Soziolinguistica Institutua, 2002. - 216 p. ; 24 cm

EUSKARA - EUSKERA

1970

Sustrai bila : zenbait euskal korapilo / Larresoro. - Donostia : Herri-Gogoa, 1970. - 156 or. ; 18 cm. - (Irakur sail. Erakaskintza)

1974

Euskara batua zertan den / Larresoro. - Oinati : Editorial Franciscana Aránzazu, 1974. - 220 or. ; 20 cm. - (Jakin sorta ; 8)

1977

L'emploi de l'indéfini en souletin : (à travers l'oeuvre du poète Etxahun) / José Luis Alvarez Enparantza
En: *Fontes linguae vasconum.* - Pamplona. - Año 9, n. 25 (en.-abr. 1977), p. 29-55

Oinarri bila : morfosintasian eta fonologian / Txillardegi.
- Donostia : [s.n.], 1977. - 240 or. ; 20 cm

1978

Euskal gramatika / Txillardegi. - San Sebastián : Ediciones Vascas, 1978. - 430 or. ; 24 cm

La originalidad lingüística vasca a la luz de los fenómenos de sustrato / José Luis Alvarez-Emparanza

En: **Cultura vasca II / José Luis Alvarez-Emparanza [etc.]**. - San Sebastián : Erein, 1978. - P. 7-25

1979

Euskal aditz batua / Euskaltzaindia ; taulen prestatzailea, Txillardegi ; hitzaurrea, Luis Villasante. - Bilbo : Euskaltzaindia, 1979. - 180 or. ; 22 cm

1980

Euskal fonología / Txillardegi. - San Sebastián : Ediciones Vascas, 1980. - 454 or. : ir. ; 24 cm

La lengua vasca / Txillardegi

En: **Historia de Euskal Herria.** - Donostia : Ediciones Vascas, 1980. - T. IV, p. 1-43

Zubererazko transkribaketa bat / José Luis Alvarez Enparanza

In: **Fontes linguae vasconum.** - Pamplona. - Año 12, n. 34 (en.-abr. 1980), 29-36 or.

1981

Toponimia egoeraren neurri : hitzaurrea = En torno a la toponimia : prólogo / Txillardegi

In: **Orereta izenaren alde / argitaratzaileak, Agustinetako Auzo Elkartea [etab.]**. - [S.I.] : [s.n.], 1981. - P. 6-21

1984

Euskal acentuaz / Txillardegi. - Donostia : Elkar, 1984. - 432 or. : graf. ; 24 cm

"Sobre el acento vasco" deritzon doktoretza-tesia oinarritua

Basada en la tesis doctoral "Sobre el acento vasco"

1996

Lingua navarrorum / Txillardegi. - Hernani : Orain, 1996. - 103 or. : ir. ; 20 cm. - (Euskal gaiak) (Egin biblioteka ; 34)

2004

Euskararen aldeko borrokan : euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak : 1956-1983 / Txillardegi. - Donostia : Elkarlanean, 2004. - 259 or. ; 24 cm. - (Eztabaida ; 7)

Elkarlanean - Colaboraciones:

1971

Atsotitzak eta neuritzak / Oihenarte ; Larresoro'k prestatua ; Eugenio Goihenetxe'ren hitzaurrea. - Donostia : Herri Gogoa, 1971. - 227 or. ; 18 cm. - (Irakur sail. Olerki)

1977

Diccionario general y técnico. 1, castellano-euskara / Luis María Múgica Urdangarín ; con la revisión de José Luis Alvarez Enparanza, Txillardegi. - San Sebastián : Ediciones Vascas, 1977. - 597 p. : il., mapas ; 24 cm

Hiztegi orokor-teknikoa. 2, euskara-gaztelera / Luix Mari Mujika ; Txillardegi-ren gainbegiratuaz. - San Sebastián : Ediciones Vascas, 1977. - 618 or. ; 24 cm

1987

Euskal dialektologiaren hastapenak / koordinatzaile eta zuzentzaileak, Txillardegi eta G. Aurrekoetxea ; parte hartzaleak, I. Camino [etab.]. - 2. ed. - Bilbao : Udako Euskal Unibertsitatea, 1987. - LXII, 604 or. : mapak ; 25 cm

6

**Euskal kultura
Cultura vasca**

1967

Al Comité Ejecutivo de E.T.A. / J.L. Álvarez Emperanza, J.M. Benito del Valle, Xabier Imaz. - [S.I.] : [s.n.], 1967. - 1 p. ; 27 cm

Por qué dejamos E.T.A. / J.L. Álvarez Emparanza, J.M. Benito del Valle, Xabier Imaz. - [S.I.] : [s.n.], 1967. - 2 p. ; 22 cm
Texto en euskera y castellano

1973

Proyecto de manifiesto vasco / Harribizketa'k. - Ciboure : Hordago, 1973. - 80 p. : il. ; 22 cm

1978

Euskal Herritik erdal herrietara / Txillardegi ; hitzaurrea, Joan Mari Torrealday. - [S.I.] : [s.n.], 1978. - 497 or. ; 21 cm

1984

Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981 / Txillardegi. - Donostia : Elkar [etc.], 1984. - 84 or. : ir. ; 17 cm. - (Adi ; 6)

1985

Gertakarien lekuko / Txillardegi. - Donostia : Haranburu, 1985. - bol. <1> ; 21 cm
Bigarren tomoa ez zen argitaratu

1992

Antigua 1900 / José Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi. - Donostia-San Sebastián : Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea, 1992. - 349 or. : ir. ; 22 cm. - (Otras ediciones ; 5)

1993

Antigua 1900 / José Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi. - 2^a ed. - Donostia-San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1993. - 357 p. : il. ; 22 cm. - (Otras ediciones ; 6)

1994

Euskal Herria helburu / Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi. - Tafalla : Txalaparta, 1994. - 318 or. ; 19 cm. - (Amaiur ; 12)

1997

Euskal Herria en el horizonte / J.L. Alvarez
Emparantza, Txillardegi. - Tafalla : Txalaparta, 1997.
- 305 p. ; 22 cm
Traducción de Euskal Herria helburu (1994)

2004

Santa Klara : gure uharte ezezaguna / Txillardegi. -
Donostia-San Sebastián : Kutxa Fundazioa, 2004. -
193 or. : kol. eta z.-b. ir. ; 24 cm. - (Temas
donostiarras ; 33)
Gaztelaniazko laburpena

Elkarlanean - Colaboraciones:

1988

Argazkiak : Gipuzkoa-Donostia = Fotografías :
Gipuzkoa-Donostia / hitzaurreak = prólogos, Jose
Luis Alvarez Emparantza "Txillardegi", Javier Aizarna
Azula. - Donostia-San Sebastián : Sociedad
Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia-
San Sebastián, 1988 . - v. <3> : principalmente fot. ;
31 cm
Contiene: 1941-1950

1994

Hilketa euskal herri kulturan : hilketa Azkue eta
Barandiaranen ahozko ipuin eta ele zaharretan /
Aitzus Iñarra ; hitzaurrea, Jose Luis Alvarez
Emparantza "Txillardegi". - Irún : Iralka, 1994. - 81 or.
; 21 cm. - (Colección universidad ; 2)

1996

La "Providencia" : fábrica Lizariturry y Rezola,
Bentaberri, Donostia, Gipuzkoa : (1864-1994) /
fotografías, Pedro Párraga ; textos, Alberto Santana,
José Luis Alvarez Emparantza "Txillardegi". -
Donostia : Asociación Cultural Matxingarratz de
Estudiantes, 1996. - 15 p. : il. col. y n. ; 27 cm. -
(Tartalo Kirikan : arkitekturako monografiak ; 1)

1999

Ur su lur [Bideoa]. - [S.I.] : Ikuska Multimedia, 1999.
- Kasete 1 (ca. 26 min.) : soin., kol.
Barruan ditu Joxe Azurmendi, Txillardegi eta Xabier Erizeren iritziak

Itzulpenak - Traducciones :

1974

Kolonizatuaren ezagugarria / Albert Memmi ; euskaraztzaile, Larresoro. - Oinat : Editorial Franciscana Aránzazu, 1974. - 126 or. ; 19 cm. - (Jakin liburu sorta ; 13)

1978

Itxaskaria : los euskaros y el mar / J. Altuna [etc.] ; fotografía, Sigfrido Koch Arruti ; redacción en euskera, J.L. Alvarez Emperanza (Txillardegi), Xabier Amuriza ; textos fotográficos, Miguel Ortiz de Arratia. - Bilbao : Petronor, 1978. - 475 p. : il. col. ; 30 cm

1984

Alfredo Bikondoa : artista pintor / idazle lankideak, Bikondoa, Alfredo [etc.] ; idatzitako textuen euskarazko bertsioa, Txillardegi = Alfredo Bikondoa : artista pintor / colaboradores literarios, Alfredo Bikondoa [etc.] ; versión euskerica de los textos literarios, Txillardegi. - San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1984. - 123 p. : il. ; 22 cm. - (Colección antologías ; 24)

1985

Eibartar artistak, 1700-1985 = Artistas eibarreses, 1700-1985 / Juan Antonio García Marcos ; idatzitako textuen euskarazko bertsioa = versión euskérica de los textos literarios, Txillardegi. - San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1985. - 281 p. : il. ; 22 cm. - (Colección Antologías ; 25)

1986

Agustín Ansa : dibujos, acuarelas : exposición / euskarapena = traductores, Txillardegi, Gotzon Nazabal. - San Sebastián : Caja de Ahorros Municipal, 1986. - 217 p. : il. ; 22 cm. - (Colección Antologías ; 27)

1987

Carlos Elguezua = Elgezua Karlos : eskultorea / [traducción de Txillardegi]. - San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1987. - 224 p. : il. ; 28 cm. - (Colección Antologías ; 30)

José Zugasti : 1984-1987 : exposición / testuak = textos, José Marín-Medina y Kosme M. de Barañano ; euskerara itzulpena = traducción al euskera, Txillardegi. - Donostia-San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1987. - 30 p., 64 p. de lám. : il. ; 28 cm. - (Colección Antologías ; 31)

1989

Pintores vascos y no vascos / M. Flores Kaperotxipi ; traducción al euskera, Jose Luis Alvarez Emparanza Txillardegi. - San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1989. - 242 p. : il. ; 28 cm

7

Elkarritzketak Entrevistas

1973

Intxausti, Joseba

"Larresoro"-rekin solasean / Joseba Intxausti
In: Zeruko argia. - Iruña. - 562 zk. (1973 abenduak 16), 12. or.
In: Euskal herritik erdal herrietara / Txillardegi. - 1978. - 11-16 or.

1976

Amatiño

Txillardegi mintzo : antimarxista eta sozial-demokrata omen... : euskal politik indarren egoera eta batasunaz / Luis A. Aranberri

In: Zeruko argia. - Iruña. - 705 zk. (iraila 1976), 25-27 or.

José Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi"

En: Garaia. - San Sebastián. - N.1 (sept. 1976), p. 24-25

1978

Rekalde, Yon

"Txillardegi" entre la cultura y la política / Yon Rekalde

En: Punto y hora de Euskal Herria. - San Sebastián. - N. 80 (mar. 1978), p. 14-18

1980

Txillardegi a tumba abierta

En: Punto y hora de Euskal Herria. - San Sebastián. - N. 178 (jun. 1980), p. 19-22

1984

Aristi, Pako

Txillardegi : gizona traszendentzia eta heriotzaren arteko kontradikzioan bizi da / Pako Aristi

In: La Voz de Euskadi. - Donostia. - 1984ko martxoak 7, 10-21 or.

Txillardegirekin euskaraz eta abertzaletasunaz : [elkarritzeta]

In: Argia. - Donostia. - 1984ko irailak 11, 18-21 or.

1986

Urkia, M.

Txillardegirekin, Eirez : "Irlanda askatua, imitatu behar ez dugun eredua" / M. Urkia

In: Punto y hora de Euskal Herria. - San Sebastián. - N. 458 (dic. 86), 47-49 or.

1988

Urkia, M.

Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegi"ren oroitzapenetan : V. Biltzarra eta Fronte Abertzalea / M. Urkia

In: Punto y hora de Euskal Herria. - San Sebastián. - N. 518 (jun. 88), 46-48 or.

1993

Amuriza, Xabier

"ETA izenaren proposamenarekin joan nintzen bilera hartara" : [elkarriketa] / Xabier Amuriza

In: Euskadi eta Askatasuna = Euskal Herria y la libertad. - Tafalla : Txalaparta. - V. 1, p. 169-176

1996

Agirre, Joxean

Hitza hitz : Txillardegirekin solasean / Joxean Agirre. - Donostia ; Bai Ona: Elkar, 1996. - 180 or. ; 21 cm. - (Literatura saila; 171)

1997

Murua Uria, Imanol

"Egia da goseak adimena zorroztzen duela" : [elkarriketa] / Imanol Murua Uria

In: Egunkaria. - Donostia. - 1997ko azaroaren 30, 40. or.

1999

Aldabe, Koldo

Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" :
intelektual konprometitua / Koldo

Aldabe

In: Egunkaria. - Donostia. - 1999ko utarrilak 3, 5-7 or.

2002

Goenaga, Eider

Jose Luis Alvarez Enparantza, "Txillardegi" :
hizkuntzalari eta idazlea / Eider Goenaga

In: Egunkaria. - Donostia. - 2002ko maiatzaren 10,
14-15 or.

8

**Txillardegi buruzko azterketak
Estudios sobre Txillardegi**

Monografikoak - Monográficos:

1960

Arrizubieta, Martín de

Txillardegi, un gran novelista vasco / Martín de
Arrizubieta. - [S.I.] : [s.n.], 1960. - 8 p. ; 16 cm
Separata de: Proxis

1974

**Begiarmen (Jokin Apalategi eta Paulo
Iztueta Armendariz)**

Sei idazle plazara / Begiarmen. - Oinati : Editorial
Franciscana Aránzazu, 1974. - bol. <1> ; 18 cm. -
(Jakin liburu sorta ; 14)
Edukia: Mitxelena, Aresti, Larresoro

1975

Sarasola, Ibon

Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza :
(irakurlearentzat gidaria) / Ibon Sarasola. - Donostia
: Kriselu, 1975. - 85 or. ; 17 cm. - (Kriselu ; 2)

1995

Kultur Udal Patronatua

Txillardegi / Kultur Udal Patronatua. - Donostia :
Udal Liburutegia, 1995. - 12 p. ; 22 cm. - (Irakurketa
gida ; 17)

2000

Azkue Biblioteca, Euskaltzaindia

Txillardegiren bibliografia : 1956-1999 / Azkue
Biblioteka, Euskaltzaindia. - 2000. - 75 or. ; 30 cm

Ormaetxea, Txipi

Txillardegi lagun-giroan / Txipi Ormaetxea, Gotzon
Aurrekoetxea, Patxi Salaberri Muñoa, Pilartxo
Etxeberria. - Bilbo : Udako Euskal Unibertsitatea,
2000. - 384 or. : ir. ; 24 cm

Artikuluak - Artículos:

1978

Ibarzábal, Eugenio

Jose Luis Alvarez Emperanza / Eugenio Ibarzábal
En: 50 años de nacionalismo vasco 1928-1978 : (a
través de sus protagonistas). - San Sebastián :
Ediciones Vascas, 1978. - P. 360-372

1994

Erasun, Arantxa

"EHE sortzen bultzatu gintuzten arrazoiek hor
diraute gaur egun" / Arantxa Erasun
In: Egunkaria. - Donostia. - 1994ko azaroaren 13, 12. or.

1995

Gartzia, Pruden

Euskal Herria helburu : Jose Luis Alvarez
 Enparantza, Txillardegi, Txalaparta,
 Tafalla 1994 / Pruden Garzia
 In: Uztaro : giza eta gizarte zientzien aldizkaria. -
 Bilbo. - 13 zk. (1995), 145-153 or.

Zabala, Juan Luis

Idazle bat baino askoz ere gehiago : bere literatur
 ibilbidea aztertu eta errepasatu zuen Txillardegik
 Donostian / Juan Luis Zabala
 In: Egunkaria. - Donostia. - 1995ko urriaren 26, 33.
 or.

1999

Agirre, Joxean

Txillardegi, pintzelada lodietan / Joxean Agirre
 In: Jakin. - Donostia. - 114 zk. (iraila-urria 1999), 11-
 15 or.

Arrizabalaga, Nerea

Txillardegi nobelagile / Nerea Arrizabalaga
 In: Jakin. - Donostia. - 114 zk. (iraila-urria 1999), 47-
 65 or.

Azurmendi, Joxe

Txillardegiren saioa : hastapenen bila / Joxe
 Azurmendi
 In: Jakin. - Donostia. - 114 zk. (iraila-urria 1999), 17-
 45 or.

Beltza

Txillardegiren pentsaera politikoa / Emilio López
 Adan
 In: Jakin. - Donostia. - 114 zk. (iraila-urria 1999), 67-
 83 or.

Etxeberria, Pilartxo

Txillardegi hizkuntzalari / Pilartxo Etxeberria, Rosa Gandarias, Jose Luis Ormaetxea
In: Jakin. - Donostia. - 114 zk. (iraila-urria 1999), 85-115 or.

2001

Aulestia, Gorka

Un siglo de literatura vasca. José Luis Álvarez "Txillardegi" (1929-)
En: Sancho el Sabio : revista de cultura e investigación vasca. - Vitoria-Gasteiz. - Año 11, 2ª época, n. 15 (2001), p. 45-91

2004

Gorostitzu, Ainara

Intelectual militantea / Ainara Gorostizu
In: Berria. - Donostia. - 2004ko uztailaren 29, 29. or.

Interneteko baliabideak Recursos en Internet

TXILLARDEGIREN OBRAK OBRAS DE TXILLARDEGI

Kale Erabileraren IV. Neurketa : prentsa gehigarria.
Azalpen gisa / Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi
<http://www.sortu.org/modules.php?op=modload&name=Subjects&file=index&req=viewpage&pageid=48>

Euskalarien jardunaldien ondoren / Txillardegi
In: Zeruko Argia, 1980-09-28
<http://www.argia.com/mendea/hemero/80txilla.htm>

UPV, UEUren aurka? / Txillardegi
In: Argia, 1984-05-20
<http://www.argia.com/mendea/hemero/84upv.htm>

Campion, Arana-Goiri eta beste / Txillardegi
In: Argia, 1985-06-23
<http://www.argia.com/mendea/hemero/85txill.htm>

Eraso betean / Jose Luis Alvarez Enparantza
"Txillardegi"
In: Berria, 2004-06-08
http://www.ostabe.net/gune_irekia/art_019.htm

TXILLARDEGIRI BURUZ SOBRE TXILLARDEGI

Alvarez Enparantza, Jose Luis, Txillardegi
Literaturaren Zubitegia
<http://www.armiarma.com/zubi/egileak/00130.htm>

Jose Luis Alvarez Enparanza, Txillardegi
Donostiako Euskal Idazleak
Bibliografia eta obra zati batzuk
Bibliografia y fragmentos de algunas obras
<http://www.euskaraz.net/donostia/idazoleak/idazoleak/00005.htm>

Alvarez Enparantza, Jose Luis
Euskal Idazleen Elkartea
Kurrikuluma, bibliografia, sariak eta argazkia
Curriculum, bibliografia, premios y fotografia
<http://www.idazoleak.org/idazoleak.htm>

Txillardegi (Jose Luis Alvarez Enparanza)
Biografia
<http://www.puntubi.com/euskarakultur/txillardegi.htm>

Txillardegi
Beterriko liburua aldizkaria, Lanean biluztuz
Biografia eta Leturiaren egunkari ezkutuari buruzko testu bat
Biografia y texto sobre Leturiaren egunkari ezkutua
<http://www.larramendi.org/aldizkaria/lb-txillar.htm>

Txillardegi, edo fidelitasun baten biografia / Andolin Eguzkitza
In: Hegats: literatur aldizkaria, 1997, zk. 15-16, 101-104 or.
<http://www.idazoleak.org/argitalpenak/hegats/hegats15-16.pdf>

Txillardegi : "Nire historia pertsonala da"
[elkarritzeta]
In: Literatur Aldizkarien Gordailua, Stultifera Navis-2
(1983)
<http://www.armiarma.com/andima/stul/stul0206.htm>

"Egun errazago ikusten dut euskararen
normalizazioa aginte politikoa bat baino" :
[elkarritzeta] / Iñaki Petxarroman
In: Berria, 2003-12-14
<http://www.berria.info/elkarrizketak/azala.php?id=6>

Txillardegi : Kosmodromo like a virgin / Felipe
Juaristi
In: Literatur Aldizkarien Gordailua, Literatur Gazeta-
3 (1985-azaroa)
<http://www.armiarma.com/andima/gaze/gaze0305.htm>

60ko urteetako kulturgintza / Iñaki Aldecoa
In: Euskonews & Media, 77zk (2000/5/5-12)
<http://www.euskonews.com/0077zbk/gaia7707eu.html>

La actividad cultural de los años 60 / Iñaki Aldecoa
En: Euskonews & Media, N. 77 (5-12/5/2000)
<http://www.euskonews.com/0077zbk/gaia7707es.html>

La novela vasca en la década de los 60 / Jesús María
Lasagabaster
En: Euskonews & Media, N. 76 (5-5/4-28/2000)
<http://www.euskonews.com/0076zbk/gaia7607es.html>

Hemen aipatzen diren web orrietarako esteka
guztiak erabilgarri daude 2004ko uztailaren 31an.

Todos los enlaces a páginas web aquí citados están
operativos a 31 de Julio de 2004.

Eta ez dugu jardun. Zertarako?

Eztabaidetatik ez da sekula argirik

ateratzen. Bi aldeek darabiltzate,

arrazoia, pentsamena, eta hari

datxezkion zioak eta probakariak.

[...] Norabait goaz guztiak, beti

zerbati probatzera; hots, gehiago

darabilkigu bihotza, burua baino.

Leturiaren egunkari ezkutua. Elkar,

1985, or. 58